

132964 232.931LET



Angosto'ko Ama Birjin9a



ARABAKO FORU ALDUNDIA

ARGITALPEN-SAILA

M-16990

Angosto'ko Ama Birjiña - La Virgen de Angosto

Angosto'ko
Ama Birjiña




La Virgen
de Angosto

Aita Letona

Félix Santiago de Letona

132964 M-16990



GAMN

BILBOKO UDAL LIBURUTEGIAK
RED DE BIBLIOTECAS MUNICIPALES DE BILBAO

Erreg. Zk. / Nº Reg. 134.085

Sar. Zk. / Nº Entr. 145.417

Data / Fecha 9/2/05

Liburut / Bibliot. BCB

Ezan / Sig

Sig. 11-16990

D/L 132964

232.931
LET



Angosto'ko Ama Birjiña
La Virgen de Angosto

Aita Letona

Félix Santiago de Letona



Ataurrekoak

Angosto'ko Ama Birjiña'ri eskeiñiko idatzitxo au egille eutzuteen berba batzuekaz aurreraturik egotea gura izango neban. Baiña nire guraria augaitik edo orregaitik ezin bete izan da.

Nik erderaz idazti edo liburu batzuk ba-daukadaz baita idazlan ugari be. Alan be, euskerazko idazlari* lez ziur gitxi ezagutua naz, batez be euskera-ren aberaztasun guztia Euskalki bertakoetan dagoala neure gogorapen zuzen, arteza ta salkor-eza* dalako. Eta urbera modea, snobismo ta arrokerria, batua izanez, euskeraren alde lan andi ta asko egin arren ta orretan arduraz ibilli ta be, enaz iñoiz izango izenbako euskerazale ta ezezagun idazle txiro bat baiño.

Alan da guztiz be, nai eta ezta niretzat ondo etorri au esaterik, naike lanik egin dot ta izerdi ixuri euskereak daukon baiño sustrai ta indar geiago euki daian ta gure erriak zaletasun geiagoz artu dagion.

Bilbo'n bizi nazanetik, orain dirala ogei urte gitxi-gora-bera, esaera erde-razkoan esan oi-dan lez, nire are-garau eroaten edo ekarten asi nintzan. Franko'ren gudal-gubernu aldian be euskerazko ikasaldiak neukazan, lan au eten barik jarraituz. Asteroko ta gero amabosteroko aldizkari "Agur" en edozein danetariko gaiaz idazlanak idazten nebazan. Ezeukala dirurik edo, agerkari au ezereztuta, euskerazko aldizkaririk bago geratu gintzazan Bizkaia'n.

Zer eneban egin nik bat beintzat eukiteko? Andik eta ara, ortik eta ona ibilli ta ibilli al izanak egin nituan, lagun ta laguntzat billatzen billa, Bizkai'ko Aurrezki-Kutzak ardurazoten. Nire alegiñen ondorena orain illeroko aldizkari "Zer" izan zan. Emen oituraz idaz-lankide naz. Euskerazko idazlan eun

Prólogo

Hubiera sido mi deseo que esta obrita mía dedicada a la Virgen de Angosto fuese precedida de algunas palabras de autor conocido. Pero por esto o por aquello, mi deseo no ha podido ser llevado a cabo.

Aunque en castellano tengo varios libros escritos e infinidad de artículos, como escritor en euskera soy poco conocido, seguramente por mi idea rectilínea de que la riqueza del vascuence está en los Euskalkis autóctonos. Y como la moda corriente, el snobismo anda con el batua, por mucha labor que haga en favor de nuestro idioma milenario, no pasará de ser un oscuro casi desconocido escritor euskeldun.

Sin embargo, aunque esté mal el decirlo. (Al emplear esta frase manoseada cuando quiere uno referirse a las propias iniciativas, me va permitir el lector un inciso. No recuerdo de quién es esta observación atinada: "La autoalabanza no implica necesariamente fatuidad, petulancia o pretensión injustificada. Puede significar la reacción espontánea contra el desdén o el olvido de los siempre instalados y resguardados, aún sin merecerlo.")... he trabajado bastante para que el Euskera esté más arraigado y aceptado de lo que está.

Desde que estoy aquí, en Bilbao, que hará más de veinte años, comencé a aportar mi granito de arena. Aún durante el régimen de Franco daba clases en vascuence, prosiguiendo esta labor sin interrupción. Escribía artículos sobre cualquier asunto (de omnire scibili) en "Agur", que, siendo semanario, se hizo quincenal. Desaparecida esta publicación, nos quedamos en Vizcaya sin una revista en Euskera. ¿Qué no hice yo para que tuviésemos siquiera una?. Hice todas las gestiones posibles, moviéndome de acá para allá haciendo interesar a las Cajas de Ahorro de la Provincia, hasta que el resultado de mis esfuerzos fue la actual revista mensual "Zer" en la que habitualmente colaboro.

baiño geiago dodazala uste dot. "Agur" ta "Zer" aldizkari bietan bai, ba. Eleiz-Nasugiko katedraleko igandetan urteten diran Parrokiko Orrietan Mezako irakurgaietatik laburpen bat egin, idazten dot, edota eurerarik atera gogorapen batzuk. Baiña idazlan oneitan egin bai alegiñak eginj... Euzkadi'ko euskerarik onena izan daiten, erriko euskeraren auta, oberen, ederren, onena izateko, Karmeldar Aita Lino Akesolo'ren laguntasun ezberetoi, biotz-zabaleko izaten dot, jakin neban ba, euskal-idazle jatorrenetariko ta nasteborraste gitxieneko Akesolo zala.

Lau urte zear euskeraz Mezea esatera astero Portugaleta'ra jua naz. Erri andi onetan labur-itz "Sabi" Sendi Alkartuak Bizkaieraz Irakasteko irasi* neban barruko siniste betez Bizkai'ko ikastoletan umeai ezpayakoe bertako Euskalkia irakasten urte batzuk, luze edo labur eztaiguzan barru, ezereztuko yaku Euskerea. "Ama ilgo da ta seme zantar sartzaille ezta biziko", gure izparlari ospatsuenak Zubikaray'ek diñoskun lez. Alperrik Labayen'ek esango deusku: "Amar urte barru Euzkadi'n teleikuskiñeko euskerea bakarrik, egingo da". Ori berak be eztau sinistuten.

Lan, zeregiñ, leia, su-garretan diardutala, lekaide agintzak ustekaben artu nau aldakuntza egiteko bearrezkoan nagoala esanaz. 75 urte adiñeko nazala alperrik erantzun dot; zarzaroan ezin neikela orrelango agundurik egin. Aita Santu Paulo seigarrenak be diñoalako: "Abade ta lekaideak euren errietako eskubideak artu leikiezala-ta". Eta ez betetearren agindu garratza gogoratu dodaz teologu Rhaner'en esakunak. Nagusien agintza gorabide ta gora-jotze baliiodun barik bete bear izan dot...

Atsekabe mingotz onetan baretu egin naz neure eraketa, eziketa aszetik kristau-jarduerak bururatu deustan gogamen onegaz: Ur nagoanez Jaungoikoaren aurrera elduteko, Berak igarokor joankor gauze apurka apurka aldendu gura nauala; apurtu astiro, leunkiro lurrera lotuten deustezan lokarriak nai dituala...

Lekaidetxe aldakuntzan idatzi al-izango dot, baiña adiskide lagun on mediku, maisu, osagille, ikasle mediku ta maisu pozik etorten yatazan euskerea ikastera ainbateri ezin izango dautsedaz irakatsi...

• • •

Iskuntza bietako idaztitxo* au irakurleari* eskeintzen deusat era batera Angosto'ko Ama Birjiña'ganantz oneraspen ta zaletasuna ta gure antxiñako Euskera ederrari berotuten dauzana, jakinda be Euskerea erlijioaren jagole izan zana ta izango dana.

Orain ain garesti dan liburu onen argitaldia Araba'ko Aldundegi Agurgarria' ri zor deusogula gogoratu daigun.

Tendré escritos más de un centenar de artículos en las dos revistas "Agur" y "Zer". También he colaborado y sigo colaborando en la Hoja Parroquial de la Catedral, haciendo un resumen de las lecturas de cada domingo, o extrayendo de ellas algunos pensamientos oportunos y edificantes. Pero en esta colaboración, para que el euskera sea de lo mejor, la flor y nata de lo hablado por el pueblo euskaldun, he tenido la ayuda desinteresada del P. Carmelita, Lino Akesolo, quien, en expresión de un euskerófilo, es uno de los más clásicos y el menos sofisticado".

Durante cuatro años he acudido a Portugaleta a celebrar la Eucaristía en vascuence. Allí he fundado, bajo la sigla euskara "Sabi", la Sociedad de Familias para la Enseñanza del Bizkaieraz, con la íntima persuasión de que si en las ikastolas de Vizcaya no se enseña el Euskalki de la Provincia, el Euskera, a vuelta de algunos años, más o menos prolongados, en Vizcaya desaparecerá. Muerta la madre, el hijo invasor, sietemesino y espúreo, no vivirá, según declaró el decano de los periodistas en Euskadi. Es inútil que el Sr. Labayen nos diga que dentro de diez años en Euzkadi no se hablará más que el vascuence de la Televisión. Esto no se lo cree ni él mismo que lo afirma tan rotundamente.

En estos afanes y trabajos por el Euskera me ha sorprendido la Obediencia, que me ha comunicado traslado. En vano he apelado a mi edad de 75 años, edad tope de retiro y jubilación para todas las profesiones, pues Paulo sexto, a pesar de su reconocida austeridad, llegó a afirmar: "los sacerdotes y religiosos pueden disfrutar de las ventajas sociales que son normales en cada país". En balde he hecho recordar las sentencias del teólogo Rhaner para zafarme del cumplimiento de lo comunicado. Quieras que no, había que cumplir la orden de la Superioridad sin apelaciones valederas.

En mi formación de ascética religiosa me he calmado con el pensamiento de que el Señor, el buen Dios, estando ya como estoy muy cercano a comparecer ante El, me quiere apartar del afecto de las cosas, trata de romper poco a poco los lazos que me atan a la tierra.

Con el cambio de convento podré continuar escribiendo, pero no podré enseñar Euskera a tantos amigos entrañables, maestros, médicos y estudiantes de magisterio y medicina, que tan contentos venían a recibir mis clases de vascuence.

• • •

Con la más entusiasta cordialidad ofrezco al lector este librito bilingüe, sin pretensiones de que los datos que en él se aportan tengan una rigurosidad histórica. Para que los eruditos no se alarmen, digo que la historia y la leyenda irán en él amigablemente unidas, como la fe y la ciencia podrán armonizarse.

Con este trabajo quiero que al mismo tiempo que se fomente la fe y devoción a la Madre de Dios de Angosto, se aumente la afición al idioma de nuestros antepasados, que ha sido también guardiana de nuestra Religión.

Jaungoikoak egin daiala, Bizkaiari, nik eusko idazle zaletasun hobby leia jarraituaz, geure Begoñako Amatzu'ren edesti izkuntza bietariko euskerazko ta erderazkoa be laster aurkeztu ta eskeiñi dagiodala ta neiola.

Egilleak

- *Idazle, idazlari = escritor*
- *Salkor-eza = insobornable*
- *Ikasaldi = clases de enseñanza*
- *Aldizkari, agerkari = revista*
- *Irasi = fundar*
- *Oituraz = habitualmente*
- *Auta = flor y nata*
- *Idaztitxo = librito*
- *Irakurle = lector*

Un recuerdo y agradecimiento sincero a la generosa munificencia de la Excm. Diputación de Alava que se ha encargado de la edición del libro, tan costosa en la actualidad.

Y quiera Dios que, continuando mi tarea de escritor euskaro, pueda pronto presentar al público vizcaíno, a los coterráneos de mi provincia, la historia-leyenda bilingüe de nuestra Amatzu de Begona.

El Autor

1-Angosto'ko Ama Birjiña

GAI JAKINGARRIA

Angosto'ko gure Andra Mari gai* dala, guztiz gitxi berba egin eta idatzi da euskeraz.

Bai, izango zan itzaldiren bat, edo batzuk, Bizkai ta Gipuzkoa'ko gazteen zin-autor edo profesiorako, euren senideak etozanean, uste dogunez.

Eta Orozko, Arratia, Laudio, Baranbio, Aramaio ta Legutiano'ko baserrietan be, Mixiolari Pasiotarrak, Angosto'ko Ama Birjiñaren zale-tasuna zabaltzeko, euskeraz egingo eben.

ANDRA MARIAK EUSKERAZ?...

Angosto'n Andra Maria, gure Ama maitea, agertu zanean, bali-teike sartaldeko* gure euskeraz egingo eban berba alderdi onetan.

Zeruko Erregiñeak berak artzain-mutikoari euskeraz egingo ete eutson? Izan leike, kondairak ori ez aitatuarren...

Orregaitik, Angosto'ko Ama Birjiñeari buruz, idazti onetan, euskeraz idaztea egoki izango da.

Gai = asunto
Sartalde = occidental

1-La Virgen Madre de Agosto

INTERESA SABERLO

Acerca de Nuestra Señora de Agosto se ha escrito y hablado muy poco en Euskera. Es posible que en las pláticas se hablaría en vascuence, con ocasión de la profesión religiosa de los jóvenes de Bizkaia y Guipúcoa, ante los parientes que llegaban a presenciar el acontecimiento eclesial. Y en las Iglesias de Orozco, Arratia, Aramayona, Legutiano (Villarreal de Alava) y en los caseríos de Luyando, Llodio y Barambio, los Misioneros Pasionistas, con el fin de propagar la devoción a la Virgen de Agosto, hablarían en Euskera.

LA MADRE DE AGOSTO HABLARIA EN EUSKERA... ASUNTO INTERESANTE, ¿VERDAD?...

Cuando apareció nuestra Madre bendita es probable que hablaría en Vascuence Occidental, el Bizkaieraz en que se expresarían en aquella época los habitantes de esta región. La Reina del Cielo le hablaría en euskera al joven pastor. Es natural que así lo hiciera, una vez que se supone que el pastor no hablaría otro idioma, aunque las crónicas no lo mencionen. En consecuencia, es justo y lógico, que presentemos al mundo mariano, en Euskera, una reducida historia acerca de la Virgen María de Agosto.

PEÑASCAL ESTRECHO

Como cuenta la historia, el nombre de Agosto tiene su origen en el siglo once. En un sitio estrecho metido en corto peñascal, hizo su aparición la venerada imagen celestial. El Santuario actual fue erigido

ATXARTE ESTUA

Istori-kondairak diñoanez, "Angosto" izena XI gizalditik dator. Atxarteko toki estu baten agertu zan irudi done agurgarria.

Andra Mariaren zaletasunari eutsi eta berau bizkortuteko sortu zan craingo santutegia ta ementxe dago, pozik eta eginkor, giza-erleontzia* dirudian Pasiotarren Lekaide-etxea.

INGURUAK

Villanañe'tik Angosto'ra bide zabal bat doa, zugatz-errezkadaz alde bietatik orniduta.

Ibiltoki atsegintsua berau!

Bide zabal onek eta alderdi eder onetako landak, Angosto'ko toki ta ingurua, zeaztasun ikusgarriz beteten dabe udabarrietan eta udetan.

Lekaideen lan jakingarri ta iraunkorrak ain ondo apainduta, Santutegira elduteko bidea, uri aundi baterako sarrera lez ikusten dogu. "Emen bai ixiltasun gozoa! Eguzki ta gerizpe...! Egurats garbi ta zerutarra!... Eta eguzkiaren bero larregi orduetan, aixe bigun atsegiña, Angosto'ko Ama Birgiñaren alboan egoteko!... Ziur, sorkaldekoen* "yoga" baiño obea"!

GIRO* ATSEGINGARRIA

Ur garbi ta arraiñez bateriko erreka-tintil urdiñak, begiarentzat atsegiña geiagotzen dau. Ugari agiri dira an arrankariak, loinak, zangurriak eta abar... arraintza-zaleen zeregin pozgarrietarako.

Giza-erleontzia = colmena humana
Giro = ambiente, entorno
Sorkalde = oriental

para despertar y sostener la devoción a la Virgen María, y aquí mismo se halla ubicado, activo, dinámico y gozoso, como un colmenar humano, el Retiro de PP. Pasionistas.

LOS ALREDEDORES

De Villanañe a Angosto sale una carretera, bordeada y adornada por ambos lados de árboles vistosos. De verdad, ¡un lugar delicioso para pasear! Este camino ancho y las hermosas praderas y campos que lo envuelven y rodean están saturadas de encanto campesino sobre todo en épocas de primavera, verano y otoño. Las obras inteligentes de los religiosos han convertido tan atrayente este camino al lugar del Santuario, cual si se tratara de la entrada a una gran ciudad, sin perder nada en su sabor de agreste panorama.

AMBIENTE AGRADABLE SOBRE TODA PONDERACION

La cinta azul del río de limpias aguas pobladas de peces juguetones: truchas, loinas, cangrejos... ocupación deliciosa, aunque no gananciosa para los pescadores, poseedores de licencia legal. Soledad monacal en días de pocos romeros. Sol y sombra... atmósfera transparente y sutil a propósito para la yoga y también principalmente para la meditación cristiana bajo las miradas bondadosas de la Madre Celestial.

2-Oiñarri bi

Agozko jakintza edo tradiziñoa ta argibide* idatziak, kondairari eutsiten dagozan oiñarri sendo bi dira.

Biok ondo batuta, ziurtasunik aundiena sortzen dabe eta jazokunea kondairan sartuta izten dabe.

Angosto'ko Ama Birjiñearen agertze-albista-inguruan, ba dago jakintza-argiar gurasoakandik seme-alabakana, ekarrita.

Jakingai idatziak be ba dira, gura geunken ainbat ugari ezarren.

Eta zegaitik ez ete dira ugariak?

Ona emen garbitasun arrazoidunak.

VALPUESTA'GAZ

Angosto ta Valpuesta'ko papertegien galpena* osoa izan da.

Amabigarren gizalditik, Angosto'ko Santutegia Valpuesta'ko Abat-eleizeagaz bat eginda geratu zan.

Kolejiata onek, beraz, Angosto'ko jakingai idatzien ardurea euki egiala, berez etorren gauzea zan.

Argibide idatziak = documentos escritos
Galpena = pérdida

2-Dos bases de esta historia

La tradición y los testimonios escritos son los pilares firmes que sostienen la historia de Nuestra Señora de Angosto. Ambos bien entrelazados producen la certidumbre y los acontecimientos narrados son reconocidos como hechos históricos. Acerca de la Madre Virgen de Angosto ya existen narraciones y conocimientos transmitidos desde los antepasados, de padres a hijos. También existen escritos, material para examen y estudio, si bien no tantos como serían de desear. Y ¿cómo y por qué no han podido ser abundantes? Aquí expondremos algunas razones que arrojen luz sobre este tema.

VAMOS A LOS VALPUESTA

Hubo una pérdida notable en las bibliotecas o anaqueles de archivos de Angosto y Valpuesta. Desde el siglo doce, el Santuario de Angosto y la Abadía Eclesial de Valpuesta formaron una entidad. Por consiguiente, esta Colegiata debía tener cuidado sobre los escritos que ampliasen conocimiento acerca de Nuestra Señora de Angosto. Hacia mediados del siglo pasado, desde que el Gobierno Español se apoderó de los bienes eclesiásticos, cada cual se llevaba de los archivos los escritos que pensaba podían servirle, y más tarde, en algunos lugares los quemaban, como si no revistiesen ninguna importancia.

EL HISTORIAL DE LOS VARONA

Los documentos originales se perdieron o se quemaron sí, pero felizmente, los nuevos que aporta el archivo de los Varona de Villanañe

Lengo gizaldi-erdian, España'ko Gobernuak Eleizearen ondasunak lapurtu zituanetik, idazki ta papertegi bakoitxak bere erri-aldeetara eroan ebezan eta geroago toki batzutan erre be bai.

VARONA'REN KONDAIREA

Jatorrizko argibideak galdu edo erre ziran baiña, zorionez, Villanañe'ko Varona'ren kondaisetegi* onek ekarten dauzan albistak Angosto'ko Santutegiari mesede makala ez dautsoe egin eta batera edesti usaiña bete dabe.

Villanañe'ko Varona'ren kondairategia, 1715'garren urtean idatziriko esku-idatzi edo manuskritoa da.

Bere egillea, Varona'tar Mikel anaia, Agustin'darra, Varona etxeko semea abizenak adierazten dauanez. Beraren autorpenez*, berrogetamar urte luze egin zituan manuskritoa idazten. Orrelan ikaslan orreitan praille batek bere burua zuritu eban.

LAN BARRIAK

Erre zan etxe aretako kondairategi osoa barriro egiteko, benetan, alde batetik beneditar baten eroapena bear zan eta bestetik agustin-darren gogo zolia.

Antxiña-antxiñatik eukezan euren kondairea, pergaminoak eta leñargi-agiriak.

Baiña gau illun zoritxarreko baten urreratu zan su iruntzikorra eta odol garbiko jatorriaren agiri guztiak auts biurtu zituan.

Eta au gauza arrigarria!

Etxe bertako seme gaizto bat izan zan zoritxar orren egille.

Kondaisetegi = archivo
Autorpenez = por testimonio

han ilustrado espléndidamente el Santuario de Angosto envolviéndolo en la aureola de la historia. En los archivos de los Varona de Villanañe, aparece un escrito o manuscrito, redactado en el año 1775. Su autor, Fray Miguel de Varona, Agustino, hijo de la Casa Varona, según hace entender su apellido. Como el mismo lo atestigua, cincuenta años largos estuvo redactando el manuscrito. En esta labor paciente y continuada, encaneció su cabeza un fraile.

NUEVAMENTE A TRABAJAR

Así fue porque como quiera que se quemara por completo el archivo de aquella Casa, verdaderamente hacía falta, por un lado, la paciencia de un beneditino, y por otro, la firme decisión de un Agustino. Desde muy antiguo poseían el historial, los pergaminos y los documentos de la nobleza de su alcurnia. Pero en una noche triste y oscura, un fuego devorador convirtió en polvo todos aquellos pergaminos de limpieza de sangre. ¡Y cosa digna de espanto! El autor de esta desgracia era un hijo malo, la oveja negra de la Casa.

3-Jakingarri-Iturria

Angosto'ko Andra Mari'ren agertaldia*, miraria kontatzea Nabia'ko (Villanañe) Casa Varona'ren Historial'en 40'rren ta urrengo orrialdeetan datoz.

EURITEA

1089 urteko egun baten tximista ta ikaragarritzko ekaitza sortu izan zan. Ondoren odei ta lañoak bota eben eurite-txaparrada andia, eta Humecillo ango errekeari albo bietako bazterrak gaiñezkatu egin jakozan. Bere abereak jagoten, urak eroan ta ito ezegiezan, an egoan artzain batek Jaungoikoari ta Ama Birjiñari errugutu ta euren goibabespe ta laguntza biotzez eskatu ei-eutsen.

ATXEAN IRUDIA

Arratsaldeko laurak inguruan errekearen ur-joera gitxiturik, bere abereakaz jatzi ta beste aldeko mendipe larrean egoala janerazoten abereak, Hernando'k (au artzañaren izena) andik apur geiago oxin sakonera urreratuaz, Kalbario'ko atx-txokoan neskatotxu baten soingain* ta irudia ikusten zala oartu eban.

Agertaldia = aparición
Soin-gain = silueta, busto

3-Las fuentes de esta historia

La aparición de Nuestra Señora de Angosto y el relato de sus milagros vienen en el Historial de la Casa Varona de Nabia (Villanañe) en su página 40 y siguientes.

INDUNDACION-DESMADRE

Un día del año 1089 se produjo una tremenda tempestad de truenos, relámpagos y aparato eléctrico e inundaciones consternadoras. Tras una descarga de las nubes en que las precipitaciones eran alarmantes, las entrambas orillas del Humecillo, que así se llama el río de este paraje, desbordaban temiblemente, de forma que el pastor que allí guardaba los rebaños se encomendó fervorosamente a Dios y a la Virgen para obtener su protección, a fin de que sus animales no fuesen arrebatados por las aguas turbulentas o quedaran ahogados.

LA IMAGEN SOBRE LA PEÑA

Sobre las cuatro postmeridianas cuando la afluencia de las aguas iba disminuyendo, Hernando el pastor, que éste era su nombre, bajaba con sus rebaños y los conducía a la pradera bajo el monte del otro lado, hallándose él aquí, o más bien, acercándose un poco más hacia la profundidad del río, junto al peñón del Calvario notó que se divisaba la silueta y la imagen de una niña.

A COMUNICAR LA NOTICIA

Con toda prontitud salió a Villanañe a contar a los primeros vecinos lo que le había sucedido y lo que había visto. "Venid conmigo —les

BARRIA EMOTEN

Lenbailen abiatu zan Villanañe'ra ta lenengo auzokoari esan eutsen jaso yakona t-a ikusten ebana. "Zatoze nigaz Humecillo erreka basterretara ta ikusiko dozue ikustekoa, atx estuan uraz inguruta busti barik".

Agur Maria

Antzaiñaren erreguz joan ziran beragaz ariñiketari auzoko bi, eta arri-turik ikusi eben arek esan eutsena. Belaunikatu ziran eta Agur Mariaz agurtu eben Andra Maria.

BARRIA ZABALTZEN

Gaututen egoanez, beingoan irurok abiatu ziran barri zoragarria esateko alderdietako biztanle guztiei. Villanañe'ko guztiak ikusi eben Ama Birjiña'ren irudia urbera* mirariz geldituriko ondoan.

ABADEA TA ZARRAK

Arduraduna ta erriko zar agurgarrienak, zer egin egien jasokun miragarri orretan, batu ziran.

Abadeai egokion auzi ebastea ta alan egin eban esanez: "Zeruak egin dauan ezker agertu zedin emen Birjiñaren irudi* eder au, or alboan dagon eleizatxuan itxi bear dogula uste dot". Eta arguraz ausnartzen egoala Agerturiko Ama Birjiñeak zaindari bat euki egoki izango zala, artzain Hernando zeruko Ama lenengoz ikusi ebana, berbera eskeiñi zan orretarako. Ermitu-zai (ermitaño) antxe izan zan eta bertan egin zan santu be.

Geroago, beronek baturiko sorospe* edo limosneakaz, baseliza aundiagoa egin ei eban...

Urbera = corriente
Irudi = imagen
Sorospe = ayuda

dijo— a las orillas del río Humecillo y veréis algo maravilloso, en la angostura de una peña algo rodeado de agua y sin mojarse". A ruegos del pastor fueron con él rápidamente dos vecinos, y vieron asombrados lo que aquel les dijera. Arrodillados saludaron con Ave María a Nuestra Señora.

PROPAGANDO LA NUEVA

Como iba ya anocheciendo, con toda presteza se alejaron los tres a comunicar la encantadora noticia a todos los habitantes de aquella aldea. Todos los de Villanañe tuvieron la dicha de ver y contemplar la imagen de la Madre Virgen detenida milagrosamente en la corriente de las aguas.

EL SACERDOTE Y LOS ANCIANOS

El alcalde y los venerables o los más prestigiosos del pueblo tuvieron una Junta para considerar qué podría hacerse en aquel caso singular. Al Cura, principalmente, le competía dirimir el caso, y así lo hizo, diciendo: "Puesto que el Cielo ha hecho que esta hermosa imagen aparezca aquí, soy del parecer que se la coloque en esa iglesia pequeña que está al lado". Y mientras consideraba con toda atención que la Virgen María convenía tuviese un guardián, el pastor Hernando que era el primero que la había visto, se ofreció para tal menester. Allí mismo se hizo ermitaño y en este oficio de guardián de la Virgen se hizo santo. Más tarde, con las limosnas y ayudas que él recogía, se dice que agrandó la ermita.

4-Irudiaren agerpena

Agertzearen kondairea azaletik aztertuaz, antza, Humecillo errekeak euki eban oi-ezlango uriolaren bidez, 1089 urteko jorraillaren 25'ean agertu ebala Jaungoikoak Irudi deuna, atara lei.

Bear ba'da, agertze-atxpean edo grutan bertan eskutauta, ondo ostenduta, egongo zan, uren indarrak sarrera bako atxpe orren orma txikia apurtu eta narrazka eroan arte (1).

NOZKOA DAN

Baiña noztik orretan aurkitu al izan zan Andra Maria' ren irudia?

Nortzuk eskutatu eben?

Kristiñautzearen lenengo gizaldietan, Gobeia Aran'ean Jesukristo' ren irakaskintza zabaldu zala diñoen oiñarridun autorpenak ba dira.

IV edo V mendean bizi izan zan Flavio Dextro kondaira-zaleak egiten dau lenengo autorpena.

Lekaide-etxeak = conventos

Uka-eziña = innegable

Zalantza-eziña = sin vacilación

(1) OARPIDEA: Orain an dagoan goitik berako bidea, urbide-zatia errekeari kenduta, kalbario'ko atxaren oinperaiño egin zala, kontuan artu dagigun.

4-Manifestación de la Imagen

Considerando superficialmente la historia de la aparición parece que Dios hizo que se manifestara el 25 de abril de 1089 mediante una extraordinaria inundación del río Humecillo. Pudiera ser que estuviera bajo la peña en la gruta bien escondida y guardada hasta que la fuerza de las aguas rompió la pequeña pared que formara la peña inferior sin entrada y arrastró la sagrada imagen. Ahora el camino que baja desde una altura robando al cauce del río parte de sitio, tengamos en cuenta que llegaría hasta el pie de la peña del Calvario.

¿DE QUE FECHA DATA?

¿Desde qué fecha en ese lugar pudo haberse hallado la imagen de Nuestra Señora? Hay testimonios fundamentales de que en los primeros siglos del Cristianismo que afirman haber sido el Valle de Aran evangelizado con las enseñanzas de Cristo. El historiador Flavio Dextro que vivió entre los siglos cuarto y quinto aporta el primer testimonio.

LA DIOCESIS DE OSMA.

El año 91 de la Era Cristiana en Osma Uxama del Valle Gobeia, el Obispo que se llamaba Astorquio, mientras evangelizaba o propagaba la Buena Nueva fue martirizado. El segundo testimonio es de

OSMA ELEITZ-BARRUTIA

Kristau-aroko 91'garren urtean Gobeia Aran'eko Osma Uxama'n, Astorkio izena eukan Gotzaiña, ebanjelioa zabaltzen ebillala, martiri egin eben.

Bigarren autorpena * Hauberto de Sevilla'rena da.

Bere Cronicon'aren 100'garren orrialdean, Gobeia Aran'ean Osma Gotzaintegia edo Eleiz-barrutia egozala diño.

Eta bost gotzain zenbatzen ditu, euretarik lenengoa, Fortunato. 268'garren urtera arte bizi izan zana.

LEKAIDE-ETXEAK

Gregorio de Argaiz, lekaide beneditarren kondaira-zale orokorrak, aurreragokoen esanak egiztatzten dauz eta bere "La soledad laureada" n aitatu dogun Gobeia Aran orretan VII mendean beneditar lekaide-etxeak ba egozala diño.

KRISTAUAK LENAGO

Ori olan izanik, VII mendean lekaidetxe ta bakartegiak ba'egozan, uka-eziña ta zalantza bakoa da ango biztanleak naikoa lenagoko aldie-tatik kristiñauak zirala.

Dana dala, gure Aran'eko arabitarren sarraldia baiño lenago kristauak zirala esan gura dau orrek. Eta, beraz, Ama Birjiñari gurtza emoten eutsoela.

VALPUESTA'KO ELEIZ-BARRUTIA

Jon, Valpuesta'ko Eleiz-barrutiaren irasleak, gotzaintegi orren iraspenean, baztertuta eta bakarrik aurkitu eban eleizea birregin eta barriztu eban.

Au jakiñez, Irudi deunaren asiera ta sortzeari buruz, oiñarridun eretxiau iragarri lei.

Oi-ezlango = desacostumbrado
Autorpenak = testimonios

Hauberto de Sevilla. En la página 100 de sus Cronicones afirma que en el Valle Gobeia existía un Obispado de Osma. Y enumera cinco obispos entre los cuales, el primero, Fortunato que vivió hasta el año 268.

CONVENTOS DE FRAILES

Gregorio de Argaiz, historiador universal de Frailes beneditinos comprueba las afirmaciones de los antepasados, y en su "Soledad Laureada" en el mencionado Aran Gobeia en el siglo séptimo afirma que había conventos beneditinos.

PERO ANTES LOS CRISTIANOS

Siendo esto así, es claro que si en el siglo séptimo había conventos y sitios de soledad, no es posible negar y poner en tela de juicio que los habitantes de aquellos parajes con bastante anterioridad ya eran cristianos. En todo caso, ello significa que antes de la invasión de los Arabes en nuestro Valle de Aran ya había cristianos, y por lo tanto, ya se daba culto a la Virgen Madre María.

LA DIOCESIS DE VALPUESTA

Juan, fundador de la Diócesis de Valpuesta al fundar esta Sede de Obispos, renovó y amplió la Iglesia que encontrara arrinconada y solitaria. Teniendo esto presente, sobre el comienzo u origen de la sagrada imagen podemos lanzar alguna suposición fundamental.

HUYENDO DE LOS MOROS

Según conocemos por la historia, tras la desgraciada guerra del río Guadalete, que tuvo lugar en la provincia de Cádiz en el año 711, los Sarracenos vieron abiertas las puertas de España y rápidamente quedaron dueños de toda la Península. Tras este hundimiento total, en la rápida huida de los cristianos, Euskadi sería el lugar de su refugio y acogida pacífica.

MAURITARRAKANDIK IGES

Dakigunez*, Guadalete erreko zoritzarreko gudaldi-ostean, Cadiz'ko lurraldean 711'garren urtean izan zan, mauritarrak España'ko. atea zabalik ikusi ebezan eta beingoan ia erdi-ugarte edo península guztiaren jabe geratu ziran.

Ondamen aren osteko kristau guztien zaparradan, Euzkadi'ren sartaldeko lurraldeetan izango ziran, aurki, igeslarientzat gordeleku ta aterpeak.

IRUDIA AIXPERA

Gobea Aran'ean gordeta bizi ziranean, bildurrez arerio arabiatarren alboan, Irudi deuna Kalbario'ko atx-zuloan, Humecillo errekearen ondoan ostenduko eben, mauritarrak jaurti eta geroago uriola batek agertu arte.

Dakigunez = como sabemos

LA IMAGEN BAJO PEÑA

Los que se refugiaban en Aran Gobeá, temerosos de sus enemigos los árabes que estaban cerca, guardarían la imagen sagrada en la cueva del Calvario, junto al río Humecillo, hasta arrojar a los moros y llegar la inundación mencionada.

5-Baseleiza zar bat

Esan danez, Angosto'ko Andra Maria'ren irudia, bere agerpen-ostean, alboko ermita txiki baten aldi baterako ezarri eben.

Baseleiza orreri San Pedro esaten jakon.

Egipen xinglea* ta atalbakoa zan.

Ezagutzen dan izenez, "Peña San Pedro"ren be-aldean dagon oska zabaltxuan eginda egoan.

Gaur be, teillatu-ageak non ezarrita egozan igarri leiteke.

Ermita orrek ez dau iraun gaur-arte. Orregaitiño, berari buruz dakiguna esango dogu, Angosto'ko Andra Maria'ren kondairaz estu lotuta eta Gobeaa araneke Araba-lurrean, XI mende* urrutian aren lenengo eleize izan zalako.

ZEIN ZAN

Zein eleiza izan ete zan San Pedro'ren baseleizearen sortzaille?

Aldietako gau illunean galtzen da eguntzaren zeaztasuna.

Antza dagoanez, Benito deunaren Lagundiari zor eutsan bere izatea.

Bere toki-egopena ta sorburua dakiguzan lez, beraren berarizko ezaugarriak irakurlearen adimenari agertu ta aurkeztuko dautsoguz.

Xinglea = sencillo
mende = siglo

5-Una vieja ermita

Según queda dicho, la imagen de Andra Mary de Angosto, después de su manifestación o aparición, fue instalada en una ermita pequeña que al lado se encontraba.

Esa ermita se conocía con el nombre de San Pedro. Era de construcción sencilla y sin compartimentos.

Al lado de la "Peña San Pedro", como se la nombra, hay una abertura bastante amplia en la que hacía de ermita.

También en nuestros días se pueden adivinar donde estaban colocadas las vigas del tejado.

Esa ermita no ha durado hasta ahora.

Sin embargo, lo que sabemos acerca de ella lo vamos a decir, porque está estrechamente unida a la historia de Nuestra Señora de Angosto y al valle Gobeaa, en la provincia de Alava, y porque en el lejano siglo XI era la primera de allí.

¿QUIEN ERA?

¿Quien podría ser el fundador de la ermita de San Pedro?

Los detalles de los datos se pierden en la noche de los tiempos.

Sin embargo, por las conjeturas podemos sacar que su existencia era debida a la Orden de San Benito.

Su lugar, su topografía y su nacimiento según sabemos, las señales específicas tuyas, se las presentaremos y ofreceremos a la inteligencia del lector.

TXIKIEGIA

1089'garren urtean, neurritz laburra ta estua zala ba-dakigu.

Villanañe'ko ''Casa Varona''ren kondaira idatziak diñosku, berton eskas amabi laguneko taldea egon zeitekela.

Alan be, geroago barriztauta, zabalagoa ta aundiagoa izan zala, sinisteko zioak ba-dagoz, ta ondorengo gizaldietan bere etxegaiak beste egipen baterako onurakor izan ziran.

ILLUNTASUNA

XI mendearen azkenetik aurrera, XVIII gizaldira arte, Kepa Deunaren ermita au laiño lodi batek eskutatzen * dau.

XVIII gizaldian argi apur bat agertzen da, bere izatea jakiteko.

AUZI BI

Berrogei ta amar urteko aldi laburrean* Villanañe'n auzi* bi aztertu ziran.

Lenengoa, 1702n, urtean egin zan. Arin amaitu zan, alde biak ebatzi bat onartu eben eta.

1751'garrenean auzi ori barriztu egin zan. On Custodio de Castresana'k beko auzokoak bere alde eukazala.

BAIMENIK EZ

Gizon orrek Angosto'ko San Pedro'ren baseleizea lurreratu gura eban, beronen etxegaiakaz beste barri bat egiteko, auzune-erdian*, Pikota-tokian, Agurtza otoitzerako.

Ez eutsoen emon eskaturiko baimenik, auzoko talde batzuk aren asmoen aurka egozalako.

Eta Kepa Deunaren baseleizearen kondairako barriak emen amaitzen dira, jakiña, beste tzelada* garrantzi aundi bako batzuk ixilduz.

Baiña, beste alde batetik, noz jausi zaneko barririk ez dakigunez, azkenez eguntza zeatzik edo bitartekorik ezin esan geinke.

eskutatzen da = se oculta

aldi laburrean = breve tiempo

auzi = juicio

Auzune-erdian = en medio del vecindario

Tzelada = circunstancia

DEMASIADO PEQUEÑA

En el año 1089 sabemos que era corta y estrecha.

Los escritos del historial de la Casa Varona nos dicen que en ella apenas cabían un grupo de doce personas.

Con todo, renovada más tarde, hay razones para creer que había sido más grande y amplia, y en los siglos posteriores su material de construcción fue útil para otra arquitectura.

OSCURIDAD

Desde finales del siglo XI adelante hasta el siglo dieciocho, esta ermita de San Pedro está envuelta en una espesa niebla. En este siglo XVIII brota un rayo de luz para enterarnos de su existencia.

DOS JUICIOS

En el breve espacio de cincuenta años, dos juicios fueron examinados en Villanañe.

El primero se verificó en el año 1702. Pronto quedó finiquitado porque las dos partes aprobaron una resolución.

En 1751 ese juicio fue renovado. El vecino de abajo, Don Custodio de Castresana, llevó las de ganar.

NO HABIA PERMISO

Este señor quería derribar la ermita de Angosto, para con su material de construcción edificar otra, en medio de la vecindad, en el lugar llamado Pikota, a fin de rezar el Santo Rosario.

No se le concedió la licencia solicitada, ya que un grupo de vecinos se declaraban contra los planes de aquel hombre.

Y aquí terminan las nuevas, los datos históricos, omitidos algunos otros de poca importancia.

Pero como, por otra parte, no sabemos cuándo desapareció la susodicha ermita, no podemos añadir más datos para terminar.

6-Angosto'ko Ama begira

Angosto'ko Ama Birjiñearen irudi donea San Pedro'ren baseleizan egon zan. Sei edo zortzi illebeta izango ziran gitxi gora-bera.

Aldi au igarota, Birjiña Ama maitearen eraspenez*, bere-berea izango zan ermita bat egin eben.

Inguruetako jentea laster konturatu zan Birjiña orrek Jesukristo'ren Ama zalako, bitartekotasun altsua eukala Jaungoikoaren aurrean. Orregaitik, gorputz eta arimako bearkizunetan babesa ta laguntza eskatzera etozan Gobeia-Aran'eko biztanleagana eta Ama Birjiñea be Angosto-tik bere Ama-begi errukitsuak biurtzen asi zan.

ALATZ* UGARIAK

Angosto'n alatz edo mirari ugariak egiten zituan Amaren maitetasunak eta semien sinismenak. Mirari ikusgarriak benetan.

Erromesaren* bertso zarrak diñoan lez, "Angosto'ko Birjiñatxu maitea! Sinismenez deituten dautzuen zorionbakoen ongille" egiztatu zara.

Mirariak zirala-ta, geroago ta geiago Angosto'ko Ama Birjiñeaganako sinismena ta itxaropena, zabaldu ta aundi egin ziran.

Erazpenez = por devoción

Alatz = milagro

Erromesaren = de los romeros

6-Mirando a la Madre de Angosto

La imagen bendita de la Madre de Angosto estaba en la ermita de San Pedro. Durante seis o ocho meses, poco más o menos, sería el tiempo de su permanencia. Pasado este tiempo, por devoción a la Madre Virgen amante, edificaron una ermita que sería exclusivamente suya.

La gente de los alrededores pronto se dio cuenta que esta virgen, porque era la Madre de Jesucristo, tenía poderosa intercesión ante Dios.

Por eso, en las necesidades físicas y espirituales venían hacia las poblaciones de Aran Gobeia a pedir protección y ayuda, y la Virgen Madre, desde Angosto, comenzó a volver hacia ellos sus ojos misericordiosos de Madre.

MILAGROS EN ABUNDANCIA

En Angosto, milagros sin cuento hacían el amor de la Madre y la fe de los hijos. Y ciertamente admirables.

Según expresan estos versos antiguos. "Amada Virgencita de Angosto, Te acreditas como la bienhechora de los angustiados que te invocan".

A causa de milagros, se extendía y engrandecía de día en día la fe y la esperanza hacia la Virgen Madre de Angosto.

MIRARIAK GAUR

Mirariai edo alatzai buruz gogartetxu bat egin dagigun.

Gaurko teknika ta materialismu-aldi onetan, alatzak, Jaungoikoaren esku-artze lez, ukatu egiten dira sarritan, "filosofu" ta "teologu" kristiñauen artean be bai.

Baiña gaurko telogurik aurreratuenetariko batek Schille-beeckx'ek diñoana gogoratu dagigun: "Miraria ez da adimenaren aurkako zentzunbakokeria. Jaungoikoak nai dauanean, ekin leike izadian..." (Jaungoikoa, gizonaren etorkizuna, bere liburuan, 217 orrialdean).

KONDAIREAREN ARIRA

Goazen geure arlora.

Noiz-arte egon zan Angosto'ko Ama Birjiñea, esan dogun baseleiza orretan?

Bear ba'da, 1.300'garren urtera arte, "Casa Varona'ko zazpigarren Jāunaren aldian, Angosto'ko Andra Maria'ren irudiak igaro-aldi luze bat egin eban, bere mirarizko agertze-tokitik orain dauka Santutegitokiraiño.

Ikusi dogunez, kondairan zear lau toki izan ditu Angosto'ko Andra Maria'k.

LAU TOKITAN EGONA

Lenengoa, agerkuntza-tokian, atx-zuloan, Kalbario'ko atx-pean, sorkaldetik*.

Bigarrena, Antxiñakoa dan eta gaur ezereztuta dagoan San Pedro'ren baseleizan.

Irugarrena, bere-berea dauan eta Kalbario edo "Montecillo" atx-gaiñean dagoan Birjiñearen baseleizan. Andra Maria'ren eraspenez egindako baseleizea da au.

Azkenengoa, laugarrena, oraingo eleizea, Azkenengo bost gizaldietan ementxe dago, iñoz tokiz aldatu barik, Angosto'ko Andra Maria'ren irudi goragarri ta agurgarria.

Sorkaldetik = por el lado oriental

LOS MILAGROS, HOY

Hagamos una consideración acerca de los milagros.

En esta nuestra época de técnica y materialismo, los milagros muchas veces son negados como intervención especial de Dios, aún entre los filósofos y teólogos cristianos.

Sin embargo, un teólogo de lo más sutil y avanzado de nuestra edad, Schillebeeckx, dice y lo vamos a recordar para que no lo olvidemos nunca: "El milagro no es un contrasentido que contradice a la inteligencia humana. Lo que Dios quiere tiene que suceder en la naturaleza..." (En su libro Porvenir del hombre, pág. 217).

AL HILO DE LA HISTORIA

Vamos a nuestra tarea.

¿Hasta cuándo estuvo la Virgen Madre de Angosto en esa ermita que hemos mencionado?

Tal vez hasta el año 1300, refiere el historial de Casa Varona, en la séptima época del Señor, la imagen de Nuestra Señora de Angosto estuvo durante largo tiempo en el lugar de su aparición milagrosa hasta que fue trasladada al sitio de su actual Santuario.

Por lo tanto, según hemos visto, Nuestra Señora de Angosto, a través de la historia, ha tenido cuatro lugares.

SI, HA ESTADO EN CUATRO SITIOS DISTINTOS

El primero, en el lugar de su aparición bajo una cueva, bajo la Peña del Calvario.

El segundo, en la antiquísima y hoy desaparecida ermita de San Pedro.

El tercero, la que propiamente es suya, en la ermita sobre la peña que se llama "Montecillo". Esta ermita fue levantada por devoción especial a la Madre de Angosto.

El cuarto y último en el que está la iglesia de ahora. Desde los últimos cinco siglos acá, está sin cambiar de sitio, la venerable y excelsa imagen de María, Nuestra Señora de Angosto.

7-Gogorapen sakonak

Angosto'ko Ama Birjiñearen mirariak edestu baiño len, gogorapen sakon batzuk irakurleai eskiñiko dautseguz.

Bizi garan gaurko teknika-aldian ez dira onartzen mirariak, ez dira sinisten.

Orraitiño, federearen bidez, Jainko ta gizonen artean benetako alkartasuna dagoala esaten dogunean, ez da izango zentzunbagekeria Jaungoikoak, berak maite dituanen alde, ekinbide arrigarriak artzen dituala esatea.

Fede-ikuspegiz Jaungoikoak izadiari, dan langoa * izan daitela eta istoria gizonak izatea nai daben langoa izan daitela izten dau.

Alan eta guztiz be, izadian naiz istorian, Jaungoikoak berak maite dituanen onerako, Berak jazo daiten nai dauana, jazo daitela egiten dau, egazkin baten lemazaiñak * egiten dauan antzera.

LENENGO MIRARIAK

Jaungoikoaren Ama'k Agosto'n egin eban lenengo miraria, bere irudia maitaleai emoteko, urak gelditutea izan zan.

Emendik asi ziran ainbeste alatz, bere maiteen alde Angosto'ko Amak egin zituan ainbeste mirari.

Lakoa = langoa
Lemazaiña = piloto

7-Pensamiento profundo o filosófico

Antes de empezar a narrar los milagros de la Virgen de Angosto, vamos a ofrecer al lector unos pensamientos dignos de ser meditados.

En los tiempos de técnica actual no se quiere oír hablar de milagros; no tienen, como se dice, buena prensa; no se cree en ellos.

Sin embargo, mediante la fe, al decir que entre Dios y el hombre hay verdadera comunicación, no estará fuera de sentido común hablar de que el Señor-Dios en favor de los que él ama ostenta recursos maravillosos.

En la óptica de la fe Dios deja que la naturaleza aparezca como es, y permite que la historia venga a ser como los hombres quieren que sea. Pero con todo y ser así, lo mismo en la naturaleza que en la historia, el Señor Dios, para el bien de los que El ama, lo que El quiere que suceda hace, a semejanza de lo que hace el piloto de un avión.

Tan sólo porque el piloto se somete a las exigencias de la materia, puede suceder, puede él hacer que suceda con ella (es decir, con la materia, con el avión) lo que él mismo exige libremente. Así que el fundamento de todos los logros técnicos es que el hombre acepte su propia impotencia y la sumisión a la llamadas leyes de la materia.

LOS PRIMEROS MILAGROS

El primer milagro que la Madre de Dios de Angosto hizo fue el de detener las aguas para hacer donación de su imagen a sus amantes devotos.

1570'garren urtean Santutegiaren alboko gaiso-etxea su indartsuak artu eban. Nok eta zelan amatau? Angosto'ko Andra Maria'k, bertako kapellauaren otoitzak bitarteko zirala. Onek, gaiso-etxea suak iruntziten ebala ikusiaz, deadarrez deitu eutsan: "Angosto'ko ama! Lagundu nagizu!" Eta sua ezereztua* izan zan.

BERBIZKUNDE BAT

Beste mirari bat, Angosto'ko Amak, Barona'tar Mikel (O.S.A.) lekaidearen alde egin eban. Beronen berbakaz edestuko dogu.

"Irudi guztiz deun onek, 1649'garren urtean, auxe egin eustan: Asko maite nindun otsein zintzo bat egoan etxean. Kastresana'tar Kristobal zan bere izena. Orrillean*, nik lau urte nituala, Barona'tar Katalina ta Juana nire izekoak aregana bialdu ninduen, otzara bategaz, askaria eroateko. Errekearen beste aldeko ortuan atxurretan ebillan bera. Atadarias deritxon tokian, ortuko atetik naikoa urrin.

Morroiak ikusi ninduan, baiña bere lanean jarraitu eban.

Ni ez nintzala beregana elduten* konturatu zanean, billa etorri zan.

Bidean egoan oxin batera, gaiñeko age bat igarotean, jausi nintzala ikusi eban eta uretan itota aurkitu ninduan.

Bat-batean oxiñera jaurti eban bere burua esanez: Angosto'ko Ama! Ume oneri lagundu egiozu!

El tiempo que permaneció aquí en Angosto lo consigna el historial del convento: "En Septiembre de 1889 en este Convento Retiro, los religiosos se inundaron de alegría cuando supieron que el que había sido General quería vivir en esta soledad, entre ellos. Se le preparó la mejor habitación que disponían, y en realidad llegó aquí a Angosto el 15 de octubre de 1889."

Emen izan eban egotaldiaren barria, Angosto Lekaidetxeko edesti berarizkoan aurkitzen dogu: "1889'ko urrillean, Lekaidetxe onetan lekaide anaiak, euren Buru Nagusiak bakartegi onetara, euren artera, biziten etorri gura ebala jakiteaz atsegin aundia artu eben. Gelarik onena gertatu eutsoen eta etorri egin zan, 1889'ko urrillaren 15'ean".

TXIRO TA NEKETSU

Emen izan zan artean, neke-min andiak artu ebazan.

Lekaidetxe barria gustiz amaitu barik egoan, otza ikaragarria alde guztietatik, eta bera beti lenengo lege-zeaztasun* guztiak beteten.

Apal, eratsu, eroapentsu... beti egoan bere gelan edo koruan otoi egiten. Mezak erazo, eskaratza garbitu eta olango zeregiñak pozik egiten ebazan.

Sugarria ebagi eta ezpalak batu ta ekarten ziarduala, olango lanak egiten ebazanean beti, poza, alaitasuna ta irribarrea ezpainetan agertzen ebazan.

Olantxe bizi izan zan guri jarraibide ederrak emoten ille bi ta erdian.

SANTU EUSKALDUN BAT?

Baiña euskaldunok batez be Aita Patxi'ren gomutea ezin dogu aitzu.

Ementxe Angosto'ko Ama Zerutarraren ondoan lenengo santutasun oinkadak emon ebazan. Ementxe bete eban abade-ikastaldi luzea eta Meza-barria emonda lekaide-gaien maisu izan zan.

Gero, gudaldian, Ebanjelio'ko onbide gatx ikaragarriz Euzkadi guztia arritu eban.

Bere azken-egunetan emen biziaz, emendik Bizkai'ko baserrietara joaten zan gaisoen aingeru on bat izateko.

Gaisoai Jesus'en Kalbario'ko oiñazeak agertzen eutsezan eta kristiñauen eroapena irakatsiaz, maitasun eta itxaropenezko eriotz ederra itxaro-azoten eutsen.

BIZITZA GOGOANGARRIA

Aita Patxi'ren bizitzea euskaldunik geienak ezagutzen dabe gitxi gora-bera, bere barriak idazkietan zabaldu dira-ta.

Baiña nok entzun dau Maria Jesus'tar Bernardo aita Agurgarriaren barririk?

lñok ez edo gitxik.

Zeaztasun = exactitud

POBRE Y CON PADECIMIENTOS

Mientras vivió aquí, tuvo que experimentar muchas amargas, pobreza y padecimientos.

El nuevo convento estaba sin terminar del todo; un frío espantoso se metía por todos lados, y él siempre el primero en el cumplimiento exacto de las reglas y reglamentos.

Humilde, modoso y paciente, siempre se le encontraba en la celda estudiando y en el coro rezando. Ayudar Misas, limpiar la cocina y otras parecidas ocupaciones las ejecutaba con la mayor satisfacción.

También cuando cortaba leña, la juntaba y la llevaba a la cocina y realizaba semejantes trabajos, siempre se le veía alegre, contento y con la sonrisa en los labios.

Aquí vivió durante dos meses y medio, dejándonos hermosos ejemplos de vida religiosa y evangélica.

¿TAMBIEN UN SANTO EUSKALDUN?

Pero nosotros los euskaldunes, imposible es que no tengamos el recuerdo de Aita Patxi.

Aquí mismo, en Angosto, junto a la Madre Celestial daba los primeros pasos en la santidad. Aquí mismo hizo sus largos estudios para sacerdote del Señor, y, celebrada la primera Misa, quedó como maestro de novicios.

Luego, en la guerra fratricida, con ejemplos de virtudes evangélicas tremendamente difíciles de practicar, llamaba la atención de toda Euzkadi.

En sus últimos años, viviendo también en Angosto, solía desde aquí salir a los caseríos de Vizcaya para desempeñar el oficio de un ángel auténtico con los enfermos.

UNA VIDA DIGNA DE RECORDARSE

La vida de Aita Patxi podemos decir que la conoce la mayoría de los euskaldunes, poco más o menos, pues escritos copiosamente extendidos y también algunos medios de comunicación la han dado a conocer.

Pero, ¿quién ha oído las nuevas del venerable P. Bernardo María Jesús? Nadie, apenas, o pocos.

Como hemos dicho, procedente de una familia de nobleza romana, desde su juventud entró en la Congregación de los Pasionistas. En ella, por sus relevantes méritos extraordinarios, se le hizo Cabeza y Jefe principal.

Esan dogunez, sendi aundikian jaioa zan eta gaztaroan sartu zan Pasiotarren artera. Emen, bere neurritz gorako gaitasunagaitik, Buru ta Nagusi ezarri eben.

Eginbear* gatx onetan, ogei ta amar urte igaro zituan. Amaikagarren urtean etorri zan Angosto'ko Santutegi onetara ikustaldia egitera eta emen geratu zan esandako egotaldia egiten.

XIII Leon Aita Santuak Kardinal izatea eskiñi eutson, baiña berak apaltasunez ez eban artu.

«SANTU BAT IL JAKU»

1911'garren urteko abenduaren 9'an il zan. Gizataldeak* deadarka esaten eben: "Santu bat il jaku".

Angosto'ko Ama Birjiñaren Santutegiak ta Lekaidetxeak, euren orma doatsuen barruan gizon ospetsu ta santu bi oneik ostatz izan zituelako, omenik gorenena ta bidezko aintza daukez.

Eurak ez ziran izan mundu barriaren agertzaille ta trebetasunaren irakasle. Orrein irudi osoak ta egiñak gogo-alderdi estitsuaz Angosto'ko Ama dan Andra Maria'ganako zaletasuna irakasten dauskue.

Eginbear = deber, obligación
Gizataldea = gente, muchedumbre

En este cargo tan difícil permaneció nada menos que treinta años. En el año undécimo de su generalato vino a hacer una visita al Santuario de Angosto y aquí hizo su estancia ejemplar durante el tiempo que hemos señalado. El santo Padre León XIII le quiso hacer Cardenal de la Iglesia, pero rehusó con la mayor modestia y humildad.

«SE NOS HA MUERTO UN SANTO»

El nueve de diciembre del año 1911 murió, mejor dicho pasó a mejor vida. La muchedumbre que rodeaba el convento de los Santos Joanes de Roma clamaba enfervorizada: "se nos ha muerto un santo".

El Santuario de la Virgen Madre de Angosto y el Monasterio Pasionista que tuvieron la suerte de cobijar entre sus paredes a estos dos santos, los recuerda con cariño y les tributa una memoria entrañable de homenaje y honor.

Ellos no habían sido descubridores de nuevos continentes ni maestros en el arte y habilidad. La imagen de ellos y sus hechos saturados de alto espiritualismo nos enseñan el amor y la devoción que debemos tributar a Nuestra Señora, la Madre de Angosto.

15-Zaletasuna

Pasiotarrak Angosto'n geratu ziranetik Gobeia Aran'eko erritxuetan Andra Maria'ganako zaletasunaren su-garra ugaritu* egin da eta Angosto izan da Araba'ko-Santutegirik ikertuena.

JAI AUNDI BI

Irailaren 8'an izaten da bertako jairik aundiarena, Santutegiko Zaindariaren* eguna dalako. Jai aundi au sarritan aurreko edo osteko igandera aldatzen da.

Lengo gizaldiaren azkenengo urteetatik asita, Pasiotarren Anaidia irasi eban Gurutzeko Paul deunaren jaia biurtu da garrantzitsu* eta urterik urtera entzute aundiagoa dauko.

BESTE JAI BATZUK

Beste jai edo eleizkizun batzuk be ospatzen izan dira. Esaterako Nekaldiaren Anaidiak edo kofradiak eratua, Otoi-Apostolukuntzarena eta olangoak. Azkenengo onek obeto, anai kofradiak XX gizaldiaren asieran indar aundia artu eban. Oraingo Abade Nagusi dan Mariano Diaz de Tuesta'k, Zuzendari gartsua zala, ekintza ta eleizkizun ederrak eratu zituan.

Ugaritu = acrecentar
Zaindari = Patrona
Garrantzitu = dar importancia

15-Devoción a la Virgen

Desde que los Pasionistas se establecieron en los pueblecitos de Valle Gobeia, incrementóse la llama de la devoción a la Virgen de Angosto, y Angosto ha venido a ser uno de los Santuarios más visitados de Alava.

DOS FIESTAS PRINCIPALES

El 8 de setiembre suele ser la fiesta mayor de allí, por ser el día de la Patrona del Santuario. Esta fiesta principal muchas veces se cambia al domingo anterior o posterior.

Comenzando desde los años finales del pasado siglo, la fiesta de San Pablo de la Cruz, del que fundara la Congregación de Pasionistas, se convirtió en fiesta importante, y de año en año ha ido adquiriendo mayor fama.

OTRAS FIESTAS

Otras fiestas o cultos eclesiales vienen celebrándose. Por ejemplo, el organizado por la Cofradía de la Pasión, el Apostolado de la Oración y otras semejantes. A comienzos de este último siglo veinte, la referida Cofradía adquirió mucho empuje. Siendo su Director, entonces, el dinámico Párroco, Don Mariano Díaz de Tuesta, organizábanse cultos solemnes y actos llamativos.

FIESTA DE LA CONCEPCION

El 8 de Septiembre del año 1904 se reunió, cabe el Santuario, enorme gentío, sin duda el mayor que descubrimos en esta historia.

SORKUNDE GARBIAREN JAIA

1904'garren urteko irailaren 8'an neurritz gorako jentetxea batu zan Santutegian, edesti guztian agertzen danik aundierna, zalantza barik.

Andra Maria'ren Sorkunde Garbia sinismeneko egitzat* artu zanetik urrezko eztegua edo berrogei ta amargarren urtea zan. Jazokizun ori zala-ta Zaragoza'ko Pilar'era Lateralmaillako erromes-aldi gogoangarria ospatu zan, Lourdes'era be bai beste bat, eta Gasteiz'ko Eleiz-barrutikoak Santutegirik entzutetsuenean alkartu ziran.

Orain futbolarien kirolera jentea joaten dan lez, sinismendunen aldi aretan gartsu ta alai egiten ziran orrenlango joan-etorriak.

ERATZAILLEAK

Erromes-aldi ori Santutegiko alkarteak, Baldegobia'ko eta Añana Gatzaga'ko abadeak eratu eben.

Eleizkizunaren tankerea*, dizdiera, ta burubidea ezin esana izan zan.

Aitatu diran Gobeia Aran'eko abadeak, Gotzaindegiko Aldizkariak bere idaz-lan eder baten azaltzen dauan lez, "Angosto'ko Andra Maria'ren Santutegira eratu eben erromesa egundoko biotz-eragilleena ta onuragarriena izan zan... Pasiotarren arteko erki-buru zan Aita Pazifiko'k egin eban itzaldia eta berba ederrez bere biotz-ikarea agertu eban, Angosto'ko Andra Maria'ri, Zaindari aundiari lez omena* egiten ainbeste erritar eta erri ain ezbaridiñetatik* etorri ziralako".

ELEIZKIZUNAK

Meza Nagusia ederto abestu eben Alkarteko lekaideak. Goizean asitako eleizkizuna amabi ta erdietan amaitu zan eta arratsaldekoa iru-retan asi zan atxaren azpiko leizara eleiz-birea* egiñaz.

Irudi miraritsua eleiza-aurrean ipiñi eben, goizeko izlariak berak egin eutsen berba, Andra Maria'ganako benetako zaletasuna euki dagiela eskatuz eta euren gorabera, buru-auste, ta arazoetan ain ona dan zeruko Ama onen laguntza izango ebela aginduz.

Egitzat = como verdad

Tankera = forma, manera de ser

Omena = homenaje

Ezbaridiñetatik = Ezbaridiña = desigual

Eleiz-birea = procesión

Desde que se implantó como dogma o creencia de fe la Concepción Inmaculada de Nuestra Señora, la Virgen María. Era el año de sus Bodas de Oro. Con ocasión de este acontecimiento, celebrábase una peregrinación memorable a escala Nacional a la Virgen del Pilar de Zaragoza, y también otra a Lourdes, y los de la Diócesis de Vitoria tuvieron su cita en su Santuario más afamado, que es el de Angosto.

SUS ORGANIZADORES

Esta peregrinación extraordinaria la prepararon las Comisiones del Santuario, los Sres. Curas de Valdegobia y de Aña Gatzaga.

El esplendor del culto, su forma y desarrollo fue algo inenarrable.

Los sacerdotes del Valle Gobeia, como comenta en un hermoso artículo el Boletín de la Diócesis: "Hacia el Santuario de la Virgen Ntra. Señora de Angosto", organizaron una peregrinación que resultó ser de la más conmovedora y provechosa... El P. Pacífico, que era entonces consultor, hizo su discurso, y con palabras llenas de unción religiosa, manifestaba su emoción de que acudiesen tantos devotos, y de diversos pueblos, a rendir homenaje como a su gran Protectora, la Virgen María, Señora de Angosto.

ACTOS ECLESIALES

La Misa Mayor cantó con la mayor solemnidad un religioso de la Comunidad. Este acto principal de nuestra Religión que comenzara por la mañana, hacia las diez, terminó hacia las doce y media.

El acto religioso de la tarde empezó a las tres, después de terminar la procesión a la cueva bajo la peña. La imagen milagrosa la colocaron delante de la cueva. El mismo orador de la mañana dirigía la palabra, exhortando al auditorio a una verdadera devoción hacia Nuestra Señora de Angosto, prometiendo protección y ayuda especial de esta Madre Celestial en sus problemas, dificultades y vaivenes de la vida.

MENSAJE AL SANTO PADRE

Después que todo el concurso incontable hacía su ofrecimiento a la Reina del Cielo, tomó cuerpo la iniciativa de que la nueva de este culto nutrido de devotos de María se debía enviar al Santo Padre de Roma, como efectivamente fue comunicada en nombre de todos. El mensaje largo no, pero sí su meollo, lo transcribiremos aquí:

"Permitanos, Venerable Santo Padre, que los peregrinos del Valle Gobeia, Ribera y Losa que desde esta cueva, debajo peña, declaremos a voz en grito la plenitud de nuestra creencia y fe, el amor, la devoción

AITA SANTUARI MEZUA

Zeruko Erregiña oneri gizatalde guztia eskiñi ondoren, eleizkizunaren barria Aita Santuari bialdu bear jakola esan eben eta bialdu be guztien izenean bialdu zan. Mezua luzea da eta zatirik gurena idatziko dogu emen:

“Itxi eiguzu, Aita Agurgarria, Gobeia Aran, Ribera ta Losa’ko erromesak, Angosto’ko Andra Maria agertu zan atxaren azpiko kobatik, gure sinismenaren osotasuna, Birjiña Sortzez Garbiaganako maitetasuna eta zutzat daukagun maitetasuna, eraspina eta berotasuna deadarrez agertzen”.

IZENPETZAILLEAK

Erroma’ra bialdu zan burubidezko idazki ori oneik izenpetu* eben: On Mariano Diaz de Tuesta’k, Gobeia Aran’eko ta Ribera’ko abade nagusi zan On Bonifazio Salazar’ek eta Santutegiaren eta Lekaide-etxearen Zuzendari itzalgarría zan Joseba Deunaren Jerardo’k eta 40 txanburuk.

Beste batzuk ezin izenpetu* ebela esaten zan, ainbesteko gizataldearen artean aurkitzea zailtxo zalako.

Izenpetu = firmar

hacia la Inmaculada Concepción de la Virgen y nuestra adhesión cálida hacia Vos, el Representante de Cristo en la tierra.

LOS FIRMANTES

Ese escrito oportuno que se mandó a Roma lo firmaban: D. Mariano Díaz de Tuesta, el que era Arcipreste del Valle Gobeia y Ribera, D. Bonifacio Salazar, el Rector del Santuario y del Monasterio P. Gerardo de San José, más cuarenta Párrocos.

Y se hacía constar que otros muchos no podían firmar, pues resultaba hacerlo difícil entre el ir y venir de tanta gente.

16-Irudia

Angosto'ko Andra Maria'ren irudiak, irudigintza-aldetik emoten dauzan berezkoak eta kondaira-aldetik dagokiozan zeaztasunak garrantzizkoak eta jakingarriak dira.

Baiña oiñarrizkoa dana obeto ulertzeko ta sakonduteko, erti-lan oneik kristautasunaz dauzan zer-ikusiak agertuko doguz zerbait eta zirrist-zarrastaka baiño ez ba'dabe.

KRISTAU-ERTIA

Kristau-ertiaren iturrira jo ezkerro, ur orren sorlekua* Jainkoa bera dala ikusiko dogu.

Nok ez daki kristiñau-ertia ta sineskuntza, lagun banandu-eziñen antzera, batera jaió, azi, zabaldu ta biribilduten dirala?

Jesukristo gure Jaunaren nortasuna, bere gizakundearen eskutukia, bere jaiotza, bizitzea, nekaldia, eriotzea, berbizkundera, igokundera, bere Ama Eroslekidea, ta abar, ertilari kristiñauentzat goi-argiaren iturburu ezin-ustua* izan dira.

ANDRA MARI'AK

Andra Maria'ren irudiak egiteko ta bere izaerea agertzeko era ezbar-diñak dagoz.

Sorlekua = origen

Ezin-ustua = inagotable

16-La imagen

La imagen de María Virgen de Angosto, las particularidades que ofrece de la imaginería escultórica y las circunstancias que presenta en el terreno de la historia son importantes y dignas de estudiarse.

Mas para comprender que ello es fundamental, y para profundizarlo, descubriremos las relaciones que estas obras de arte mantienen con el Cristianismo.

ARTE CRISTIANO

Si acudimos a las fuentes del arte cristiano, veremos que el manantial de donde brota ese surtidor de agua es el mismo Dios.

La personalidad de Nuestro Señor Jesucristo, el misterio de su Encarnación, su Nacimiento, su Vida, Pasión y Muerte, Resurrección y Ascensión han sido y serán fuente inagotable de sublime inspiración.

LA VIRGEN MARIA

Hay maneras diversas de tallar la imagen de Nuestra Señora y de expresar su modalidad.

Las formas de las primeras edades manifestaban estas dos circunstancias: juventud y hermosura, pero juventud limpia y hermosura divina. Un particular velo de una joven judía, cayéndole encantadoramente por las espaldas, cubría su cabeza.

Lenengo aldiko ereak zeaztasun bi oneik agertzen ebezan ondoen: Gaztetasuna ta edertasuna, baiña gaztetasun garbia, nastatubakoa, ta edertasun jainkozkoa.

Neskatil Juda'tar baten oial* berarizkoak estaltzen eutson burua, sorbaldatik zoragarriri jantziar. Agertzen dira oial ori bako Andra Mari batzuk be. Zeaztasun onek, M. Rossi'k diñoanez, Andra Maria'rentzat omena agertzen dau: Aldi baten Neskutsak ez eben oialik erabilten.

GIZALDIETAN

V gizalditik Andra Maria Ama Birjiña lez agertzen da, Errege edo Aztien gurtza barik, eta aldi onetan erti latindarra ta Grezia'tarra edo Bizantzio'tarra banandu egiten dira.

VIII gizalditik XII'era erromaniku-tankerea zabaldu zan eta irudien adierazpena itzal aundikoa zan: Aulki baten jesarrita, esku eskerrean umea eta umeak eskoian sagarra dauala. Jatorrizko obena adierazteko bidea izan daiteke au.

Urrengo gotikua esaten jakon tankerea da, XIII gizalditik XIV'era Lengo arpegi latzaren orde, irudi oneik adierazpen biziagoa, biotz-beroagoa, gartsuagoa, alaiagoa, amakorragoa agertzen dabe, ontasuna ta ezitasuna irri barreak agertzen dituala.

ANGOSTO'KO ANDRA MARI

Angosto'ko Andra Mariaren irudia aldi onetakoa da.

Bere arpegia alai ta irribarrezko gotiku-adierazpenaz agertzen da eta ori errez ikusi lei beste irudi latzago batzukaz bardintzen ba'da.

Angosto'ko Andra Maria'ren arpegia, guztiz biguna da; marrazki ta tolestura gizatsuz, aidekor eta ezpanetan irri-barre ezitsua agertzen dau.

Jantziaren gorringolak, kristau eratasunez egokituz, tankera gotikua argi agertzen dabe.

Eta Umea? Amaren ezkerreko belaunean dago, apur bar alboratuta* eta erria bedeinkatzeko eskutxua jasota, orrelan aldun ezaugarria emoten dauala. Gorputzean marrazki gotikuak daroaz.

Oial = velo, mantilla
Tankera = estilo
Alboratuta = ladeado

Aparecen también algunas imágenes sin el velo descrito. Circunstancia esa que, según opina M. Rossi, expresa un homenaje a la Virgen María porque hubo una época en que las vírgenes no usaban velo.

A TRAVES DE LOS SIGLOS

Desde el siglo quinto, Nuestra Señora se nos muestra como Virgen, sin el culto de los Reyes o de los Magos; y en esta edad se distinguen el arte Latino, el Griego y el de Bizancio.

Desde el siglo octavo hasta el doce, el estilo románico adquiría preponderancia y la expresión de las imágenes inspiraba gran respeto: sentada en una silla, el niño en la mano izquierda, y el mismo niño, en su derecha, la manzana. Ello podía ser un modo de dar a entender el pecado original.

Después viene el que se llama estilo gótico, en los siglos trece y catorce. En vez del rostro vulgar, pueblerino y hasta áspero, estas imágenes góticas son más expresivas, más amables, más agradables, más maternales, al mismo tiempo que la sonrisa expresa bondad y dulzura.

LA IMAGEN DE LA VIRGEN DE ANGOSTO

La imagen de Nuestra Señora de Angosto es de esta última época. Su rostro, iluminado con la sonrisa, se manifiesta con la alegría típica de las de estilo gótico, y esto podemos notarlo con facilidad si la comparamos con otras de expresión menos bondadosa.

La cara de la Virgen María de Angosto es benignísima; líneas y curvas inteligentes, expresivas y humanas, dibujando una sonrisa encantadora en sus labios virgíneos.

Los pliegues de la vestidura, adaptados a la modestia cristiana, declaran abiertamente su estilo gótico.

¿Y el niño? Está en la rodilla izquierda de la madre, algo inquieto o ladeado, extendida su manita en actitud de bendecir al pueblo, demostrando así su omnipotencia. En su cuerpecito destacan las líneas góticas.

¿DE CUANDO DATA; DE QUE EPOCA ES?

Estos detalles no se adaptan al tiempo de su aparición. ¿Cómo, pues, compaginar contradicciones?

La imagen de Nuestra Señora es de estilo gótico, sí, pero cuando

NOZKOA DAN

Zeaztasun orreik ez dira agerkunde-aldiari dagokiozanak.

Zelan alkatu ba, buru-auste ori? Angosto'ko Andra Maria'ren irudia gotiku-erakoa da eta agertu zanean ez egoan orrelango tankerarik. Orduan, lenengo irudiaren ordeztu aldiaren erako bat egin eben. Edestian santuen irudietan olango ordainketak sarritan egin dira.

Esan dagigun, ba, Angosto'ko Andra Maria'ren maitaleen poz, bake ta ziurtasunerako, urteak igaroz aren lenengo irudia ordeztu egin ebela, apurtu edo zartu egin zalako edo maitaleen eder-gogoa aldatu zalako urteen giro-aldaketaz batera.

hizo su aparición no existía tal estilo. Entonces tenemos que decir que, en vez de la primitiva imagen, tallaron otra correspondiente a la época. Y eso no hemos extrañar, pues en la historia son frecuentes semejantes cambios.

Digamos, por tanto, para alegría, gozo, paz y certidumbre de los amantes devotos de la Virgen de Angosto que, al correr de los años, su imagen primitiva la sustituyeron, porque se había deteriorado o envejecido, o también, porque el criterio o mentalidad sobre la hermosura y tallado de imágenes se había modificado con el cambio de los tiempos y evolución de las nuevas generaciones.

17-Umeen Laguntzaille

ANGOSTO'ko Andra Maria'ren ezaubiderik ederren eta begokoentari-ko bat umeentzat babes eta laguntza izatea da.

Umeak berez argala ta zurtza dalako laguntza bear izaten dau eta artu be pozik artzen dau. Orregaitik dauz Jesus'ek ain maite Ebanjelioan eta guztiok euren antzekoak izan bear dogula diño: Jaungoikoaren aurrean ume lez beti laguntza artzeko uste osoz bizi bear dogulako.

ERRUBAKOAK ETA ITXAROPENA

Soiñez, gorputzaren atalez edo anatomiz, umea gizona izateko bidean dago, eginbide bat da. Oituraz, moral-arauz, zintzoa, errugabea, garbia dogu. "Erre-iñura sartu gura dabenentzat eredu dira-ba eta ez da arritzekoa "Itxi egiozue umeai nigana urreratzen" Jainko Irakasleak esan izatea.

Gizartearen itxaropena ta Erriaren etorkizunaren* ezaugarria be bada umea: Guk egiten dogun mundu barria, bere aurrerapen eta akats guztiakaz urte batzuk barru euren eskuetan itxiko dogu.

AMAREN ARDURAPEAN

Baiña, batez be, amaren biotzeko kutuna da Amak berezko jokeraz geiago onoinenez baiño, maite dau umea. Zer jazoko litzakioe umetxu-ai, batez be gaisoren bat datorkenean, amaren laguntza ez ba'leukie? Zorioneko amesak udako laiñoak lez suntsitu ta aizetuten dira, baiña ama ordu luzeetan egoten da umeari begira zusmo goibel illunari loturik.

Etorkizuna = porvenir

17-Amparo de los niños

El de ser protección y amparo de la infancia es una de las señales más hermosas y fundamentales de la Virgen de Angosto.

El niño que, de por sí, es débil y huérfano, necesita, suele necesitar, protección y ayuda y la recibe con mucho contento y alegría. Por eso, Jesús los ama, y los ama tanto que en el Evangelio dice que todos debiéramos ser como ellos. Ante Dios todos debemos vivir llenos de confianza para recibir de El continua ayuda.

LA INOCENCIA Y LA ESPERANZA

En cuanto al cuerpo, por su anatomía y conjunto de miembros, el niño va camino de ser hombre completo. Por sus costumbres, en moralidad, es sincero, inocente y limpio. Puesto que son modelos para los que quieren entrar en el reino de los cielos, no es extraño que el Maestro dijera: "Dejad a los niños que se acerquen a mí".

La infancia también suele ser la esperanza de la humanidad y el fundamento de su porvenir. El mundo nuevo que nosotros estamos haciendo, con todos sus adelantos e imprevisiones, dentro de algunos años lo vamos a poner en sus manos.

BAJO LOS CUIDADOS DE LA MADRE

Pero sobre todo el niño es el encanto del corazón maternal. La madre, más por natural inclinación que por virtud no puede menos que amarlo. ¿Qué les sucedería a los pequeños, mayormente a los que vienen enfermos, de estar privados de la protección maternal? Los sueños de felicidad, igual que las nubes de verano, se disipan y son desvanecidos.

UNE LARRIETAN

Eta osasunaren itxaropena* urritzen danean, ezintasuna aurkitzen dauanean, ekaitzaren* azkena iragarten dauan uztargi (arco iris)'en antzera Angosto'ko Amaren irudi argitsu ta itxaropentsua argitzen da ama atseka-betuaren begietan.

Umea eriotzarako arriskutik urten eta osatuten danean, barriri dator sendi ta etxe aretara poza, zoriona.

ADIBIDEAK

Ainbat adibide doguz, eta benetakoak ez dira antxiñakoak.

Mirariak edestutean, seigarren azalburuan esan nebana gogoritzen dot emen: "Miraria ez da adimenaren aurkako zentzunbakokeria —diñosku gaurko teologu aurreratua dan Schillebeeckx'ek—; jaungoikoak gura dauanean egin leike miraria izadian". Oar au aurretiaz aitatuta, gogoratu doguz alatz edo mirari batzuk.

MARDONES'TAR JESUS MARI

Etxekoak eta auzokoak Santiago egunean illetea izango zala uste eben. Abelino ta Biktoria'ren umea il-zorian* egoan.

Aitak eta amak Angosto'ko Andra Maria'ri zuzendu eutsoezan euren otoitzak, umea eriotzatik atera egiala eskatuz.

Eta egin zan miraria. Bost egun geroago umea arriskutik urtenda egoan.

Ulertzekoa zan guraso arein poza ta atsegiña. Santutegi'ra etorri ziran Mezea agintzera 1937'ko dagonillaren 23'an eta antxe entzun eben mezea.

NESKATOTXU BI

1937'ko jorraillean osatu ziran Salazar'tar Asunzion eta Natibidad Araba Ginea'koak.

Izarra'tar Julia euren ama zorionekoak esan eban guztiz txarto egozala gaisorik eta jakituri aldetik osasunaren itxaropen barik. Baiña orra or mirari aundia: Jorrailaren 20'an, Angosto Andra Maria'ren ardu-

Itxaropena = esperanza

Ekaitza = tormenta

Atsekabe = desasosiego

Il-zorian = en peligro de muerte

cidos por el viento; mas la madre, durante largas horas, suele estar atada mirando a cualquier asomo de desgracia y tristeza.

EN LAS HORAS ANGUSTIOSAS

Y cuando la esperanza de salud es escasa, ante la presencia de lo imposible, a la manera del arco-iris que anuncia, la imagen luminosa y esperanzadora de la Madre de Angosto fulgura en los ojos de la madre angustiada.

Cuando el niño escapa de las garras de la muerte, y su curación es un hecho, la felicidad llega, entra de nuevo en aquella casa y familia.

EJEMPLOS

Poseemos muchos que son verdaderos y no muy antiguos.

Al historiar milagros, quiero recordar al lector moderno lo que afirmé en el capítulo sexto: "El milagro no es un despropósito inaceptable para la inteligencia". Nos asegura el teólogo moderno Schillebeex'ek: "Cuando Dios, el Rector omnipotente de la naturaleza, quiere obrar un milagro, el milagro invariablemente se verifica". Prevenidos de esta observación, recordaremos algunos milagros o hechos extraordinarios.

JESUS MARI DE MARDONES

Los de casa y los vecinos creían que el día de Santiago habría un funeral. El niño de Avelino y de Victoria se encontraba en peligro inminente de muerte. El padre y la madre se encomendaban en sus oraciones a la Virgen de Angosto, pidiendo con fervor y fe que le librara de la muerte al niño.

Y el niño se libró de la muerte; el milagro se realizó.

Cinco días más tarde estaba totalmente libre del peligro. Era comprensible la inmensa alegría de los padres. Vinieron al Santuario a encargar una Misa de Acción de Gracias el 23 de agosto de 1937, y allí mismo la oyeron.

DOS NIÑAS

En Abril de 1937 quedaron sanadas Natividad y Asunción de Salazar, de la localidad de Guinea de Alava.

Su dichosa madre declaraba que se encontraban muy enfermas; según los médicos, sin esperanza de salud y curación.

Pero he aquí un milagro auténtico: el 20 de Abril, puestas bajo la protección de la Virgen de Angosto, habiendo orado con toda confianza y muchos fervores, se mejoraron y después de algunos días quedaron total-

rapean ipiñita, uste on eta biotz-beroz* otoitz egiñez, oberatu ziran eta egun gitxi geroago guztiz osatu ziran.

Loreillaren 16'an, Santutegira ikustaldia* egin ebenean, mesede aundiagaitik autortza ta jaunartzea egin ebezan eta antxe egozan ume-txu polit-polit biak.

Esker onez, Santutegi'ko gurtza ta eleizkizunetarako iru pezeta emon ebezan.

GAISOEN OSASUNA

Angosto'ko Ama'ren mesede ta laguntzen edestia egin gura ba'gen-
duke, amaitu-eziña litzake.

Gure asmo ta elburuetarako esan doguzanak naikoa izango dira.

Baiña Birjiña onek, esan dogun lez, umeentzat ardura berarizkoa euki arren, adin eldukoai be sarritan laguntzen dautse.

Orregaitik esaten jako "Gaisoen osasuna" eta ondo irabazia dau izen ori.

Edestu dagigun jazoriko bat.

ARRIETA'TAR SILBINA

Bigarrenez ama izatea gatx izan jakon Artiega Araba'ko Arrieta'tar Silbina'ri eta bere bigarren ama-izateko egunetan txarto ikusi eban bere burua.

Angosto'ko Andra Maria'ren oiñetan itxi ebazan bere neke-miñak eta bere bildurra eta laster aurkitu zan osasuntsu ta zoriontsu.

Baiña arin illuntzen da gure zoriona! Bere seme kutun Jose Mari'ri ito-bearreko estuia etorri jakon. Il egingo ete zan ba gure Jose Maritxu? Osagilleak ez eutsoen amari itxaropenerako bide aundirik azaltzen eta seaska uts eta otza ur ikusten zan.

Angosto'ko Amari uste* on osoaz emon eutson umearen ardurea eta laster ume osasuntsu ta alaiaren irri-barreak guzurtu eban osagi-llen itxaropenik-eza.

ESKER ONA AGERTZEN

1938'ko epaillaren 7'an Silbina andrea ta Salazar'tar On Kandido bere senarra Jose Maritxu semeagaz batera, Santutegi'ra eldu ziran. Autortza egin eben eta Birjiñearen altara-aurrean meza bi esanaz agertu eben senar-emazte oneik euren esker ona.

Biotz-beroz = con fervor

Ikustaldia = visita

Usteon = confianza

mente establecidas. El 16 de mayo, visitando el Santuario, agradecidas a tan gran favor, se confesaron y comulgaron la madre y las dos pequeñas favorecidas.

Agradecidas de veras, entregaron tres ptas. (era entonces el estipendio de una Misa) para los cultos del Santuario.

SALUD DE LOS ENFERMOS

Si quisiéramos hacer historia de todas las mercedes de la Madre de Angosto, sería cosa de nunca acabar.

Para nuestro propósito y finalidad, los favores que hemos reseñado serán suficientes.

Sin embargo, esta bendita Virgen poderosa, como dejamos dicho, no obstante de tener un cuidado especial para la infancia, también suele prestar su protección a la gente de edad.

Por eso también se le da el nombre de "Salud de enfermos", y bien merecidamente se le aplica este nombre.

VAMOS A HISTORAR UN SUCESO ACONTECIDO A SILVINA DE ARRIETA

A Silvina de Arrieta, del pueblo de Alava, Atiega, se le hacía extremadamente difícil llegar a ser madre por segunda vez, por problemas de resolución ambigua.

A los pies de la Virgen de Angosto dejó todas sus imposibilidades y angustias, y se encontraba saludable e inundada de felicidad.

Mas ¡ay!, nuestra dicha pronto se empaña. A su querido hijo José Mary le asaltó una tos con la que parecía iba a ahogarse. Moriría, pues, su tierno José Maritxu? El médico no le facilitaba muchos caminos de esperanza a la madre y la visión de la cuna vacía y fría se presentaba a sus ojos lagrimeantes.

En un arrebató de inspiración, con la mayor confianza, dejaba todo al cuidado de la buena Madre de Angosto, y pronto la sonrisa del niño, sano y alegre, desmentía el diagnóstico pesimista del doctor.

A EXPRESAR AGRADECIMIENTO

El 7 de abril de 1938, los Sres. Silvina y don Cándido de Salazar, su marido, junto con su hijo José Maritxu, llegaban a las puertas del Santuario. Se confesaron, y después de encargar ante el altar de la Virgen querida, dos Misas, manifestaron con alegría su reconocimiento.

18-Soloen zaindari

Angosto'ko Andra Maria'k larrak, soloak eta gari-arloak zaintzen dauzala, ez da irakurteko ipuin bat, ez da edeslariaren zaletasunak asmau dauan Ama kutunaren goramenerako olerki bat, ez da Ama maiteari ipiñi gura dautsoen ereiñotzezko koroï barri bat.

Gure Ama onek daukon maitasuna agertzeko era bat da eta jazoerak antxiñatik erriaren biotzera sartu daben sinistea, beroz ta egitez baieztua.

BEAR-IZAN GUZTIAK

Andra Maria'ren esku-zabaltasun maitekorra ez da agertzen bera maite dabenengana bakarrik, arima ta gorputzeko osasuna, utsegiteen eta gaiztakerien parkamena lortuz.

Bere neurribako ontasunak gizonen premiña ta bear-izan guztiak begiratzten dauz eta guztien ardurea artutea gura dau.

Eta zer mundu onetan janaria baiño premiñazkoagorik?. Egunero gure Jainkoari eskatzen dautsogun ogia baiño bearragorik?.

Gizonak bere lan eta alegiñaz, lurra landuta, lortzen dau janaria. Atsegin-Baratzean au esan eutson Jainkoak gizonari: "Zure bekokiko izerdiaz irabaziko dozu ogia".

ARANTZAK ETA AMESAK*

Lan egitera bearturik dago ba, gizona. Eta lana dau osasun, poz, zorion eta nasaitasunik onenaren iturri.

Amesak = sueños

18-Protectora de los campos

No es un leyenda ni menos un cuento sólo para entretenerse en su lectura el que la Virgen Nuestra Señora de Angosto guarda los campos, fincas, prados y trigales, ni tampoco una poesía que la devoción del historiador haya inventado para ensalzar a la Madre Celestial, ni porque se pretenda coronarla con una corona de mirtos su cabeza.

Para que la Virgen benevolente pueda manifestar su amor hay una realidad, y los hechos que han influido que entre en el corazón del pueblo la fe, expresada con fervor y piedad.

TODAS LAS OBLIGACIONES

La generosidad amorosa de María Virgen se manifiesta hacia los que a ella aman atendiendo la salud de alma y cuerpo, obteniendo el perdón de las maldades y reparando fallos humanos.

Su bondad ilimitada y sin medida contempla todas las necesidades de los hombres y anhela llevar remedio a todos.

¿Y qué puede haber en el mundo más necesario que el alimento?. ¿Más imprescindible que el pan diario que le pedimos cada día?. El hombre, el ser humano, con su trabajo y esfuerzo, cultivando la tierra, se procura el alimento. En el Paraíso esto es lo que el Señor Dios dijo al hombre: "Con el sudor de tu frente comerás el pan".

ESPINAS Y SUEÑOS

Es, pues, obligación del hombre trabajar. Y es el trabajo salud, alegría, felicidad y la fuente más límpida de satisfacción. A pesar de todo, esta tierra en que vivimos tendrá siempre cardos y espinas. No

Alan be bizi garan lur onek beti izango dauz arantzak. Ez dago emen zorion bete ta betikorik.

Esne-saltzaillearen amesak ez dira sarritan beteten.

Lurreko langilleak azia* erein* ondoren ez dauz frutuak beti lortuten, liburu Santuak diñoanez: "Ez dabe ezer egiten landarea* sartzen dauanak eta ureztaten dauanak, Jauna da geikuntza emoten dauana".

GOI-LAGUNTZA

Orregaitik, euren aurreko lanak ta lurpera sarturiko aziak arnau-riaren itxaropena izan dagian, Zeruak onetsi dagian, Gobeia Araneko erriak Angosto'ko Andra Mariari, euren goiko jagole ta Zaindariari, udabarriz, otoi egiten dautsoe, alkartuta ikustaldia egiñaz batera.

Andra Maria'ri eskari oneik atsegin* jakozala* eta geienetan entzuten dauzala argi dago, erri areik, geienetan, uzta eder eta beteak jasoten dabezelako.

ESTUALDIAK

Baiña sarritan ango larrai be, Araba'ko lurrik ekarkorrenak eta aberasgarrienak izan arren, legorte ezordukoa etorten jake eta lur langilleen arpegia illundu egiten da eta antziz eta estutasunez eskatzen dabe ura.

Lur-langilleen alkar*-izketetan* olango zerbait entzuten da: "Ura bear dogu orain, datorren asterako euririk ez ba'da, Angosto'ra goaz".

Eta euria egiten ba'dau?. Orduan be bai, Andra Maria'ri eskerrak emotera.

Uste on aundia ta benetako sinistea daukez euren Zaindariagan. Ainbeste gizalditan gurasoakandik seme-alabakana agoz eldu dan berbeak sortu eragiten dauan uste osoa.

ESKATU TA ESKERTU

Ba-doaz eta ba-joiazan erriak Angosto'ra Gobeia Araneko Erregiñaren oiñetara, zelai areitako jagole dan Amaren aurrera.

Azia = simiente

Erein = sembrar

Landarea = la planta

Urestatu = regar

Atsegin jakozala = le son agradables

Alkar izketetan = en mútuos diálogos

existe aquí una felicidad completa. Los sueños de la lechera no se realizan frecuentemente.

El labrador aún después de sembrar la simiente no siempre obtiene frutos, según nos recuerda el Libro Santo: "No consigue nada el que planta ni el que riega, el Señor es el que da la plenitud.

LA AYUDA DE LO ALTO

Por eso, el trabajo que tienen por delante y la simiente puesta bajo tierra, para que tenga esperanza de frutos, para que el Cielo imparta su bendición, los pueblos del Valle Gobeia, todos a una, unidos en caridad cristiana, durante las primaveras, ruegan fervientes a la Virgen María, Nuestra Señora de Angosto, su Patrona y Protectora de lo alto.

Y es evidente que estas plegarias son agradables a la Virgen de Angosto y que la mayoría de las veces son atendidas y despachadas favorablemente, puesto que aquellos pueblos logran casi siempre cosechas hermosas y abundantes.

TIEMPOS DE APURO

Pero a veces, también a aquellos campos, con ser los más feraces y ricos de Alava, les llega una sequía extemporánea y el rostro de los labradores se oscurece, y piden angustiados y tristes agua. En los diálogos y conversaciones familiares de los labriegos se oye algo parecido a esto: "Necesitamos agua ahora. Si para la semana que viene no tenemos lluvia, vamos a Angosto".

¿Y si llueve?. Entonces también a dar gracias a su Protectora, la Madre de Angosto. Tienen mucha confianza y gran fe en su Virgen Amparadora. Una confianza que han germinado las palabras que durante siglos han transmitido de padres a hijos.

PEDIDO Y AGRADECIDO

Van e iban a Angosto los pueblos a los pies de la Reina del Valle Gobeia delante de la que es Protectora de sus campiñas. En cada visita o peregrinación suelen llegar a la Iglesia, y luego, a la cueva formada en la peña, a pedir la misma cosa, a hacer la misma plegaria: "Madre, agua, queremos agua".

Y la buena Madre de Angosto acoge esas súplicas y subiendo al Asiento del Todopoderoso y en la presencia de su Hijo recuerda los hijos adoptivos de la tierra, y con la preocupación de la madre, llena de piedad y misericordia, pide que sean oídas y atendidas las oraciones de ellos.

Ikustaldi bakoitzean eleizara ta atxaren zulora otoitz ber-berak esateko joaten dira: "Ama! Ura! Ura gura dogu!".

Eta Angosto'ko Ama onak otoitz orreik ontzat artzen dauz eta Jaungoikoaren Aulki Altsuraino igon eta bere Semearen aurrean lurreko seme-ordeak gogoratzen dauz eta Amaren arduraz, erruki aundiz, euren errekuak entzun daitezela eskatzen dau.

AMAREN ESKARIA

Kana'ko ezteguan bere Seme Jesus'eri esan eutsozan berbak adierazten daben lez, eta orduan "Ardaurik ez daukie" esanaz ontzi aundietan ipiñi eben ura Amaren eskaria onartzeko ardaur biurtu zan lez, orain "Ez daukie urik, soloetarako ura bear dabe" esango dautso, eta miraria egiten da ordu berarizkoren beragaz.

Gobea araneko biztanle askoren oroimenean izango da oraindiño orain gogoratu nai dogun jazoerea.

1942'ko urtean jazo zan. Bagillaren asieran soloak eta zelaiak margo orlegi ederra agertzen eben, ikuspegia zoragarria zan. Baiña legortea luzatu egin zala-ta, dana lorrindu ta galtzeko arriskuan egoan: Landarak ezotasun barik, zimelduten eta igartzen joiazan. Alango egualdiak jarraitu ezkerro, uzta ziztriña ta urria izango zan.

LEGORTEAN EURIA

Orduan be begiak eta itxaropena Angosto'ko Ama'gan jarri ebezan.

Aran guztiko larrialdia kontuan arturik Vilanañe erritxu begokotik erreku-eleizkizuna egitera Santutegira eldu ziran bagillaren 8'an.

Erriaren itxaropenari ez jakon iruzurrik egin. Egun gitxi barru, ordura arte guztiz urdin agiri zan zerua, illundu egin zan eta euria zaparradaka jausi zan kanpoetara. Eta uraz inguruetako erritxu, guztiak, poz-pozik, uzta ederra lortu eben.

LETONA'K

LA SUPLICA DE LA MADRE

En las bodas de Caná como dan a entender las palabras que dirigió a su Hijo Jesús, e igual que entonces, diciendo "No tienen vino" para que el ruego de la Madre fuese atendido, el agua que pusieron en las grandes jarras se convirtió en vino, ahora "No tienen agua, necesitan agua para las fincas" le dirá y el milagro llega con la misma especialidad que entonces.

Perdurará todavía en la memoria el recuerdo de muchos habitantes del Valle Gobeá el hecho que vamos a recordar ahora.

Sucedió en el año 1942. Al comienzo de junio, las fincas y las campiñas ofrecían un verdor precioso, una vista, un panorama encantador. Pero porque la sequía se prolongaba, había peligro de que todo se echase a perder a convertirse en paja: las plantas sin humedad, iban secándose y marchitándose. De continuar tales condiciones atmosféricas, la cosecha vendría escasa y de poca valía.

EN LA SEQUIA LLUVIA

También entonces, los ojos y la esperanza se pusieron en la Madre de Angosto.

Preocupado por la angustia de todo el Valle y haciéndola suya, el pueblecito de Villanañe llegó en rogativa al Santuario el día 8 de junio. A la esperanza del pueblo no se le engañó. A los pocos días, el cielo que aparecía hasta entonces azul, se oscureció, se encapotó de nubes espesas y por las campiñas agostadas caía a mares la ansiada lluvia. Y con el agua todos los pueblos circunvecinos se regocigaron y obtuvieron cosecha riquísima.

19-Erromeriak

Eleiz-Txango edo ibillaldiai, erromeriak esaten dautse erriak. Edes-tiko egite lez, ezagutu doguz erromeri oneik, baiña orain ez dot uste lenago beste sarritan, egiten ba'dira be.

Eta ez uste izan ain antxiñakoak diranik, orain berrogei urte inguruko jazokizunak dira.

LEN ETA ORAIN

Gai au gogoratu, buruan erabilli eta idatzi ondoren, diñodan au egi-egia dan obeto jakiteko, Angosto ondo ezagutzen dauan lagun bateri itaunketa bat egin neutson.

Pozez jakin dot, Angosto'ko Andra Maria'ganako oneraspenik, zaletasunik, ez dala galdu eta, gitxi* gorabera*, orain berrogei edo berrogei ta amar urte egiten ziran antzera egiten dirala eleiz-txango edo erromeri oneik.

EGUN IZENDATUETAN

Kuartango, Gobeia ta Lasa aranetako erritxuak ugari etorten dira Angosto'ko Andra Maria'ren irudi mirarigilleagana, sarritan, erromes-eran, euren bitarteko ta laguntzaille zerutarraren, euren jagolearenganako maitasuna agertzen eta bere babesa billatzen; euren etxe, arima, gogo, gorputzentzat laguntza eskatzen.

Urtero beintzat, txandaka, egun aukeratu ta aurreztik izendatueta, erriko agintari ta abadeak aurrean dirala, Angosto'ko Andra Maria'gana etorten dira.

Gitxi-gora-bera = poco más o menos

19-Romerías o procesiones

El caminar hacia la Iglesia o las vueltas alrededor de la Iglesia, suele llamar el pueblo peregrinaciones, romerías o procesiones, pero no pienso que ahora tiene lugar tal acto como antes lo tenía, por lo menos con tanta frecuencia. Y no se crea que sean tan antiguas, hoy hace como alrededor de sesenta años eran unos acontecimientos palpitantes.

ANTES Y AHORA

Después de recordar este asunto revolverlo en la cabeza y escribirlo, para cerciorarme mejor, quise averiguarlo mediante un compañero que conocía y conoce bien Angosto.

